



EBAZPENA (07/2009 ZINEMA-BANAKETA espedientea)

Osokoa

Javier Berasategi Torices jn., presidentea eta txostengilea

Joseba Andoni Bikandi Arana jn., presidenteordea

Juan Luis Crucelegui Garate jn., kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jn., idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2009ko ekainaren 12an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, goian adierazitako osaerarekin eta txostengilea Javier Berasategi Torices jn. dela, honako ebazpena eman du 07/2009, Zinema-Banaketa espedientean, eskumen-galeragatik espedientea artxibatzeko proposamenari buruzkoan, L.A. jn.k “*Sociedad Anónima Deportes y Espectáculos*” merkataritza-sozietatearen kudeatzaile moduan “*Filmmax Entertainment, S.A.*” eta “*Sogedasa*” enpresen aurka jarritako salaketaren inguruan.

GERTAKARIAK

1. 2009ko maiatzaren 4an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (“LDEZ”) Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari (“LDEA”) zehapen-espediente bat artxibatzeko proposamena helarazi zion, eskumen-galeragatikoa, Lehiaren Batzorde Nazionalaren (“LBN”) aldekoa. Espediente horrek, LDEZk 4/2009 zk.z sailkatuak, *Sociedad Anónima Deportes y Espectáculos* (“SADE”) enpresak *Filmmax Entertainment, S.A.* eta *Sogedesa* merkataritza-sozietateen aurka aurkeztutako salaketan du etorkia. LDEZk, bere proposamenean, espedientea artxibatzeko eskatzen dio LDEAri, euskal agintariek eskumena galtzegatik, eta espediente hori LBNri igortzeko. Proposamen horretan, honako gertakari hauetan jasoko ditugun jarduera guztiak aipatzen dira.
2. 2009ko otsailaren 18an, sarrera izan zuen LDEZren erregistroan SADEren idazki batek, *Filmmax Entertainment, S.A.* eta *Sogedesa* enpresen aurka salaketa aurkezteko, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (“LDL”) debekatutako kolusiozko jarduera batzuk zirela eta. Idazkiak zioenez, *Filmmax Entertainment* enpresak “*Slumdog Millionaire*” filmaren kopia bat bakarrik bidali zion, Donostiako Gros auzoko bere zinema-aretoan erakusteko, eta debekatu egin zion film hori Donostiako erdialdeko “Príncipe” bere zinema-aretoan erakustea. SADEk aldeztu zuen “*Slumdog Millionaire*” filma Donostiako erdialdeko bere zinema-aretoan



erakutsi ezinak lehia murrizten zuela eta kontsumitzaileei kalte egiten ziela. Hori dela eta, SADEk lehia arloko euskal agintariei eskatu zion *Filmix Entertainment* enpresari eskatzeko bere jokabidea berehala eteteko eta SADEri "Slumdog Millionaire" filmaren bigarren kopia bat bidaltzeko, merkatuko baldintza normaletan, beraren gainerako zinema-aretoetan libre erakusteko. Era berean, LDLren 54. artikulua babesean, SADEk zuhurtziako neurri bat hartzeko eskatu zion LDEZi. Hona hemen neurria:

- 1.- SADErentzat baliogabetzat aitortzea Filmix-en debekua, hau da, film hori SADEren Príncipe aretoan erakusteko debekua baliogabetzea.
 - 2.- Filmix Entertainment-i agintzea ostirala baino lehenago (2009ko otsailaren 20a) film horren bigarren kopia bat bidaltzeko.
3. 2009ko otsailaren 18an, LDEZen zuzendariak administrazio-ebazpen bat eman zuen, eta hau ebatzi zuen:
- 1.- Zehapen-espedientea irekitzea, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. eta/edo 2. artikuluetan debekatutako jokabideengatik, FILMAX ENTERTAINMENT, S.A.ri, harekin ulertuko baitira jardura guztiak, bai eta salatutako egitateekin lotuta ager litekeen zernahi pertsonarekin edo erakunderekin ere.
 - 2.- Espedientearen instrukzio-egile Guillermo Aranzabe Pablos jn. izendatzea, eta instrukzio-idazkari, berriz, Zorione Garitano Azkarraga and.
4. 2009ko otsailaren 18an, LDEZeko zuzendariak ohar labur bat igorri zion LBNren Ikerketa Zuzendaritzari, eta adierazi zion ez zela atzematen kasuan kasuko jokabideak Euskal Autonomia Erkidegoaz gaineratik dagoen eremu bati eragiten zionik, ez eta estatu mailako merkatu osoari ere. Horregatik, otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, batzorde horren iritziz, gai horretaz arduratzeko eskumena lehia arloko euskal erakundeei zegokien.
5. 2009ko otsailaren 19an, LDEZk zuhurtziako neurriak hartzeko proposamena igorri zion LDEAri, LDLren 54. artikulua eta Lehiaren Defentsarako Araudia onartzen duen 261/2008 Errege-Dekretuaren 40. artikulua arabera.
6. 2009ko otsailaren 26an, LDEAren Osokoak erabaki zuen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren zuhurtziako neurrien proposamena izapidetzeko onartzea.
7. Zehapen-espedientearen instrukzio-aldian LDEZk informazioa eskatzeko probidentzia bana eman zituen, 2009ko otsailaren 24an, *Filmix*



Entertainment eta *SADE* enpresentzat. Garaiz eta eran erantzun zitzaizen probidentzia horiei.

8. 2009ko apirilaren 30ean, LBNren Ikerketa Zuzendaritzaren idazki batek sarrera izan zuen LDEZen erregistroan, eta han jokabide salatua LDLren arabera balioesteko eskumena erreklamatzeko zen. Idazkiaren III. puntuan, "Ikerketa Zuzendaritzaren Balioespen"ari buruzkoan, honako hau aipatzen da, hitzez hitz:

"Como resultado de la información reservada llevada a cabo por esta dirección de Investigación y a la vista de la información aportada por la mercantil denunciada, queda patente que esta, actúa en un ámbito al menos nacional y que en la comercialización de la citada película, como ha manifestado la propia empresa FILMAX, se ha distribuido por todo el territorio nacional y se le ha negado también a otras salas repartidas del territorio nacional, quedando claro que la práctica denunciada tiene lugar en el mercado mayorista de distribución de películas que es nacional y ha producido sus efectos en el mercado minorista de exhibición de películas que aunque es local, se ha producido en otras salas del territorio nacional, por lo que ha excedido del territorio de esa Comunidad Autónoma.

Por ello, en atención a que los hechos denunciados alteran o pueden alterar la libre competencia en un ámbito supraautonómico o en el conjunto del mercado nacional y que van mas allá del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con lo establecido en los artículos 1 y 2 de la Ley 1/2002, de 21 de febrero, de Coordinación de las competencias del estado y las Comunidades Autónomas en materia de defensa de la competencia, se considera que corresponde al estado el ejercicio de las competencias reconocidas en la Ley 15/2007, de 3 de julio, de defensa de la competencia."

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

9. LDLk bere 44. artikuluan xedatzen duenez, LBNk prozedura batekin ez hastea edo hasitako jarduerak edo espedienteak artxibatzea erabakitzeko aukera izango du, eskumenik edo objekturik izan ez edo eskumena edo objektua galduz gero.
10. LDLren zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, legean LBL eta haren zuzendaritza-organoak aipatzen direnean, haien funtzioei, administrazio-ahalmenari eta prozedurei dagokienez, arloan eskumena duten autonomia-erkidegoetako instrukziorako eta ebazpenerako organoak barne direla ulertu behar dira, noiz eta LDLren 13. artikuluan ezarritako eskumenei buruzkoak diren.



11. Euskal Autonomia Erkidego honi dagokionez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak, alde batetik, LDEA, eta bestetik, LDEZ bereizten ditu, eta haiek, beren zehapen-eginkizunei dagokienez, LDLk ezarritakora egokitu beharko dira. Ildo horretatik, LDEAri dagokio eskumen-galeragatiko espedientea artxibatzeari buruz ebaztea, LDLren 44. artikulua arabera.
12. Aztergai den espediente honetan, LBNren Ikerketa Zuzendaritzak gertaera bidez eskumen-arazo bat mahaigaineratu du, *SADek Filmax Entertainment* eta *Sogedasa* enpresen aurka jarritako salaketaz zeinek arduratu behar duen ebazteko. LBNren Ikerketa Zuzendaritza ez da gaiaz arduratu, harik eta LDEZek kasuan kasuko zehapen-espedientea ireki duen arte, eta hori honexegatik gertatu da: LDL legea ustez urratzen zuten egitateengatik jartzen ziren salaketek berekin zekartelako presakotasun handiz zuhurtziako neurriak hartzeko eskabidea egitea. LDL horretarako arautzen duen prozedurak honako hau ezartzen du bere 54. artikuluan: “LDEAren aldetik zuhurtziako neurriak hartzeak aldeztu aurretik kasuan kasuko espedientea irekitzea eskatzen du, eta ez daiteke gai horri buruzko ebazpenik eman, zehapen-espedientea bazter utzita”.
13. Izan ere, espedientea ireki aurreko aldian gaiaz arduratzeko organo eskuduna mugatzekoari begira beharrezko den administrazio-koordinazioak ez dezake eragotzi, inola ere, behin betiko ebazpena eraginkorra izan dadin hartu beharreko presako neurriak (zuhurtziako neurriak) hartzea. Ildo horretatik, lehiaren defentsaren arloan indarrean dagoen arauketan atzematen den lege-hutsunaren aurrean, auzitegi honek bidezko irizten dio zehapen-espedientea LDEZk irekitzeari, eskubideen babes eraginkorreko printzipio orokorraren eta lehiaren aldeko printzipioaren arabera.

Euskal organoek gaiaz arduratzeko duten eskumenaren balioespenari dagokionez, auzitegi honen iritziz, salatu den jokabidea Filmax Entertainment enpresaren banaketako politika nazionalari dagokio, eta ez du atzematen *SAD*erekiko inolako bazterketa-asmoren zantzurik. Hori dela eta, bidezko da LDEZek irekitako zehapen-espedientearen artxibatzea burutzea, bai eta zuhurtziako neurriak hartzeari buruzko espedientearena ere, eskumen-ezagatik. Aldi berean, LBNri igorri behar zaizkio espediente horietan bildutako jatorrizko agiriak, dagozkien ondorioetarako.



Hori guztia dela-eta, aipaturiko manuak eta oro har aplikatu beharreko gainerako manuak ikusita, hona hemen Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren ebazpena.

EBATZI DU:

LEHENA.- Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak 07/2009, Zinema-Banaketa eskumen-galeragatiko zehapen-espedientea artxibatzeke egindako proposamena baiestea, eta jatorrizko espedientea Lehiaren Batzorde Nazionalari igortzea.

Zinema-Banaketa eskumen-galeragatiko zehapen-espedientearen inguruan eskatutako zuhurtziako neurrien espedientea artxibatzea, eta jatorrizko espedientea Lehiaren Batzorde Nazionalari igortzea.

Jakinaraz bekio ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari eta helaraz bekie "SOCIEDAD ANÓNIMA DEPORTES Y ESPECTÁCULOS" eta "FILMAX ENTERTAINMENT, S.A" enpresei. Jakinaraz bekie, orobat, administrazio-bidea amaitzen duela, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzietarako salan; bi hilabeteko epea izango da horretarako, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko ekainaren 12an

PRESIDENTEA
JAVIER BERASATEGI TORICES

PRESIDENTEORDEA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

KIDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI